

ISLAMOFOBIA

FEMINISMOAK, ERRONKAK ETA IKUSPEGIAK



ISLAMOFOBIA: FEMINISMOAK, ERRONKAK ETA IKUSPEGIAK

Idazketa eta edizioa



Diseinua eta maketazioa

Laura Luis

Itzulpena

ARTEZ Euskara zerbitzua Koop. E

Laguntzaileak



2019ko abendua



AURKIBIDEA

SARRERA	5
1. ISLAMOFOBIA	6
2. GENERO-ISLAMOFOBIA	9
3. FEMINISMO DEKOLONIALA	13
4. TESTIGANTZAK	15
5. DESIREN PUTZUA / ESKAERAK	20
6. ITXIERA	22
BIBLIOGRAFIA	23



Bizikidetza eta berdintasuna ardatz dituen gizarte batentzat erlijioan oinarritutako bazterketak edo arbuioak egoteak ardatz horiek kolokan jartzen ditu. Honen aurrean gazteekin egin behar den lanketa sakona da, bakearen kultura daukan gizarte baten aldeko apustua eginez.

Horretarako, Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lan-kidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin sinatutako hitzarmenean bizikidetza sustatzeko eta bermatzeko egin beharreko pauso bat gehiago da 2019ko irailaren 26an Donostiako Emakumeen Etxean aurrera eraman zen **‘Islamofobia: feminismoak, erronkak eta ikuspegiak’** izeneko proiektua.

Hala, islamofobiaren gaia marko orokortzat hartuta, emakume musulmanek sufri ditzaketen islamofobia kasuei buruz hausnartu nahi izan zen, ondoren, etorkizunerako erronkak eta hauei aurre egiteko proposamenak jorratu ahal izateko. Izan ere, emakume musulmanekiko sortuta dagoen iruditegiak matxismoarekin lotura zuzena du eta iruditegi hori aldatu ahal izateko ezinbestekoa da hauekiko dauden aurreiritziak albo batera uztea.

Ekitaldian hiru emakume gazteren testigantzak entzuteko aukera egon zen, ikuspegi desberdinak entzuteko aukera bermatuz. Honela emakume musulmanen artean dagoen aniztasuna kontuan hartu nahi izan zen, baina baita ikuspegi akademikoa lantzeko ere. Horretarako, hiru hizlari gonbidatu ziren eta bakoitzak bere bizipenak, testigantzak eta hausnarketak partekatu zituen. Ikram Bouzalmat, Chaimae Nakari eta Enara Arrieta izan ziren gonbidatuak, eta esandako hausnarketek islamofobia genero-ikuspegitik aztertzeke aukera eman zuten.

Ondorengo txostenean alde batetik, gaia barne-biltzen duen marko teoriko bat aurkitzen da; islamofobia, genero-islamofobia eta feminismo dekolonialaren gaineko azterketa teoriko bat eginez. Ondoren, topaketan bildutako testigantzak azaltzen dira, hiru emakumeek esandako hainbat hausnarketa daudelarik. Amaitzeko, topaketan egindako dinamika bat agertzen da.



1.

ISLAMOFOBIA

Islamofobiari buruz hitz egitean, hainbat gauza izan behar dira kontuan. Lehenik eta behin fobia kontzeptua zer den zehaztu behar da. Hau ikuspegi desberdinetatik defini daiteke. Psikologiaren ikuspuntua aztertuz gero, Bournek (2005) dioenaren arabera, desoreka emozional bat bezala azter daitezke fobiak, hala nola, agorafobia edota klaustrofobia.

Islamofobia, ordea, ez da desoreka emozionala eta ez da ezta ere beldur kliniko batean oinarritzen (kasu honetan sartzen dira homofobia, LGTBI+ kolektiboaren arbuioa). Islamofobia erlijio musulmana orokorrean eta honekin lotura duen kultura arbuizatzean datza.

Hau definitze aldera eragile desberdinek modu ezberdinetara ulertu dute, eta honek ñabardura eta kutsu desberdineko definizioak topatzea eta eztabaida ugari sortzea ekarri du. Europako Kontseiluak (2004), adibidez, honela definitu zuen islamofobia kontzeptua:

“ *Islamari beldur edo horri buruzko aurreiritziak izatea, baita musulmanekiko eta eurekiko erlazionatutako guztiarekiko ere. Islamofobia giza eskubideen bortxaketa bat eta bizikidetzarako mehatxua da, izan egunerokotasunean agertzen diren arrazismo bezala erakutsita, basterkeria bezala edo beste indarkeria moten bitartez erakutsita*”.

Bestalde, Brigitte Vasallo idazleak ondorengo jotzen du islamofobiatzat (2016):

“Islamari, pertsona musulmanei edo musulmantzat hartzen zaien pertsonetikiko gorrotoa, Islama zer den eta musulmana izatea zer denari buruz dimentsio bakarreko aurreiritzia izanik”.



Brigitte Vasallo



Islamofobiaren oinarriak hainbat gertakariren inguruan eman izan dira ikertzaile askoren arabera. 2001eko New Yorkeko Dorre Bikien kontra gertatutako erasoak jotzen dituzte batzuek oinarritzat, bai eta Al Qaeda taldearekin harremana zuten taldeek egindako beste zenbait eraso terrorista ere (Mijares eta Ramirez, 2008). Hori izan daiteke gaur egun islamofobiatzat ulertzen denaren jatorria, nahiz eta lehenago ere musulmanekiko errefusa eman izan zen, urte askoan zehar arrazakeria bezala kalifikatu dena. Esan beharra dago, gainera, historikoki musulmanaren eta arabiarren erai-kuntza negatibo bat eman dela iruditegi kolektiboan, baita jatorriagatik edo itxura fisikoagatik musulman edo arabiartzar irudikerian sartzen diren pertsonetako ere.

Hala ere, musulmanek pairatzen duten diskriminazioa ezin daiteke erlijioaren begiradatik bakarrik aztertu, diskriminazio anitzak pairatzen baitituzte. Esaterako, Mijares eta Ramirezek (2008) honakoak aipatzen dituzte: jatorri etnikoa, kolorea, nazionalitatea, generoa, hizkuntza, besteak beste. Hala, autoreek diote “diskriminazio faktore hauek guztiak beraien artean erlazionatuta daudela eta diskriminazio desberdinen interseksioa dagoela”. ‘Islamofobia: feminismoak, erronkak eta ikuspegiak’ proiektuaren kasuan erlijioaren eta generoaren diskriminazioaren arteko gurutzea landu zen. Bertan emakume musulmanek sufritzen duten islamofobiari buruz hitz egin nahi izan zen.



2.

GENERO - ISLAMOFOBIA

Mijares eta Ramirezek (2008) esan bezala faktore ugari gurutzatu daitezke musulmanek pairatzen dituzten diskriminazioetan, eta ekitaldiko topaketan landutako genero-islamofobia zer den azalduko da jarraian. Goikolearen (2013) arabera, genero-islamofobiak jarrera xenofobo eta islamofoboeri erreferentzia egiten die, hau diskurtso sexista eta misoginoekin nahasten delarik. Horren ondorioz, emakume musulmanak modu bikoitzean zapaltzen eta diskriminatzen dira. Hala, emakume izateagatik eta musulman izateagatik zapalkuntza bikoitza sufritzean datza genero islamofobiak.



Genero-islamofobia hori beste zapalkuntza batzuek zeharkatzen dute zenbait egoeratan. Horren adibide da klasea soziala, desberdina da pertsona musulman dirudun batekiko dagoen pertzepzioa edo klase baxuagoko pertsona batekiko dagoe-na. Honela islamofobia **aporofobia**rekin ¹ nahasten da.

Arrietaren esanetan (Arrieta, 2018) garrantzitsua da azpimarratzea baita ere, emakume musulman guztiek ez dutela islamofobiarik jasan. Ikertzailearen arabera ezinbesteko garrantzia hartzen du emakume musulmanei ahotsa emateak gai hauek lantzeko orduan, askotan mendebaldeko ikuspe-gia dutenak edo klase sozial altuko pertsonak bai-tira —akademia barruan dauden ikertzaileak bar-ne — gai hauek lantzen dituztenak. Beharrezkoa da emakume musulmanek genero islamofobiari buruz duten ikuspuntu eta iritzia jasotzea eta partekatzea.

¹Pertsona pobreei edo babesgabetasun egoeran daudenei diegun beldurra eta errefusa.

EMAKUME MUSULMANA

MENDEBALDEKO IRUDITEGIAN

Genero-islamofobia aztertzerakoan mendebaldeko ikuspegiak emakume musulmanekiko duen irudia oso esanguratsua da. Zentzu honetan, Zinek jasotzen du (Zine, 2006) emakume musulmanak tradizionalak eta atzeratuak modura ikusten direla, mendebaldeko emakumearen irudia moderno eta ahaldundua erakutsarazi nahi den bitartean. Egilearen arabera, iruditeria hori zabaltzeko orduan hedabideen papera oso garrantzitsua da, baita aurreiritzia ere. Ezjakintasunaren aurrean irudi estereotipatu eta okerrak mantentzen dira, eta honi aurre egitea zaila dela azpimarratzen dute emakume musulmanek.

Emakume musulmanei buruz hitz egiterakoan, gai orokorreari buruz hitz egiten da, hala nola, zapiaren erabilerari buruz edota islamari buruz. Baina askotan ahantzi egiten dira, Navarrok (2012) dioen moduan, berdintasunarekin lotura duten beste oinarritzko gai batzuk: hezkuntza eskubideak edota eskubide publikoak. Zentzu honetan, Vasallok (2016) dio diskurtsoa arropen zentratzen denean ke-lainoa sortzen dela garrantzizkoa dena ikustea galaraziz eta oinarritzko eskubide zibilak eta norbere gorputzarekiko eskubidearen diskurtsoa ahaztuz.



Gainera, Navarroken (2012) ideari jarraiki, ez da inoiz kontuan hartzen milaka emakumek islamiar identitatera gehitzeko egindako atxikipen kontziente eta nahitaezkoa. Eta ez da kontuan hartzen ezta ere askotan informazioa falta dela, ez da ondo ezagutzen islamari buruzko informazioa eta emakume musulman guztiak antzekoak direla baiezkotzat hartzen da. Honek musulmanak diren emakume guztien arteko kultura, jatorri, hizkuntza... desberdinen berezitasunak ezabatu eta denak homogeneousatzen ditu, aniztasunak eta aberastasunak kenduz eta estereotipoak sortuz.

Pentsamendu honen jatorria hainbat tokitan aurki daiteke, baina horietako bat hedabideak dira. Hedabideetako Islamofobiaren Behatokiak ateratako datuetan ikus daiteke hedabideetako albisteei emakume musulmanei buruzkoak direnean edota zapiaren gaia lantzen denean, kutsu islamofobo gehiago darie (IEMed, 2018).

Europa mailan, espazio publikoan, islamiar zapia sexualitate femeninoaren identitatea islatzen duen ikur bat izan da, besteak beste. Hala ere, hiyab-a daraman emakumearen presentzia diskurtso islamofoboaren erdigunean kokatu izan da. Emakumearen irudia arazodun, zapaldu eta mendeko gisa islatuz (IEMed, 2018). Gainera, autoren horien ideiei jarraiki, mendebaldeko pertsonen iruditegian emakume musulman gehienek zapia erabiltzen dutenaren aurreiritzia zabalduta dago, kontuan izan barik hau erabiltzeko moduak (ez da ondo desberdintzen hiyab, niqab, burka...) eta badaudela emakume musulman asko zapirik ez erabiltzea erabaki dutenak.





3.

FEMINISMO DEKOLONIALA

70. hamarkadan feminismoaren barruan korronte ezberdinak sortu ziren: dekoloniala, postkoloniala, periferikoa, antirrazista... Hauen aldarrikapena, batez ere, feminismo europarrean erabilitako 'emakumearen' irudiaren ezaugarriek kritika egitea izan zen. Izan ere, emakume zuri, heterosexua eta erdi mailako klase sozioekonomikoa izan zen feminismo europarrak erabili zuen emakumearen irudia.



Hauen arabera, emakume eredu honen pribilegioak beste talde eta kolektibo batzuen zapalkuntzaren bitartez mantentzen ziren. Hala, beste feminismo batzuen sorrera eman zen, zeinak arraza, klase soziala, erlijioa eta etnia genero zapalkuntzaren aldagaiak hartzen zituzten. Korronte hauek interseksionalitatearen garrantzia aldarrikatu zuten emakumearen zapalkuntza anitzak aztertzeko eta ordura arteko sexu-genero aldagaia osatzeko (Medina, 2004).

Zentzu honetan Vasallok (2016) dio feminismo zurieta ezin zaiela entzungor egin feminismo dekolonialei, postkolonialei, beltzei, islamikoei, ijitoei... Izan ere feminismo zurien baloreak ezin daitezke unibertsalak balira bezala kontsideratu.





4.

TESTIGANTZAK

2018an **#EmakumeakBizkidetzan** topaketan egin bezala, eta islamofobiarekiko ikuspuntu desberdinak izateko, betiere genero perspektiba kontuan izanda, hiru emakume gonbidatu ziren beraien bizipenak eta hausnarketak partekatu zituzaten. Gonbidatuak Ikram Bouzalmat, Chaimae Nakari eta Enara Arrieta izan ziren. Hiru emakumeen esperientziak entzuteko aukera izateko, bakoitzari 20 minutuko tartea eman zitzaion bere bizipenei buruz hitz egiteko.

Ondorengo atal honetan testigantzak bildu dira.




IKRAM

kram nerabe zelarik iritsi zen Espainiar Estatura, lehenik Andaluziara eta ostean Euskadira. Jatorri marokoarreko emakume musulman gazte honek hausnarketa sakonak egin ditu kultura, hizkuntza edota gizarte desberdinek bere erlijioan duten ondorioei buruz. Andaluziara iritsi zenean Ikramek ez zuen hizkuntza ezta harri-herrialdeko kultura ezagutzen, eta komunikatzeko behar zuen erreminta oinarritzkoa ez izatea erronka izan zen beretzat.

Bere burua ahaldundutzat dauka, baina ahal duntze prozesuan zehar traba askori aurre egin behar izan diola onartu zuen. Itxura fisikoa da bere ustez hiyaba daramaten emakumeek duten lehen traba: *“Itxura fisikoaren gaitzespen honek islamofobia erakusten du”*. Bere kasuan, pertsonalki oso egoera gogorrak jasan dituela onartu zuen, hiyaba eramatea autu propioa izan arren.

Bere bizipenen ondorioz konturatu zen arazoa ez zela bakarrik izaera fisikora mugatzen, baizik eta bere pentsatzeko erak ere eragina zuela: *“Zapiak, izan ere, jatorria erakusten du janzkeraren bidez”*.



“Islamofobia existitzen den errealitate bat da, eta aurre egin behar zaio” adierazi zuen Ikramek. Ildo beretik, aurre egite prozesu horrek topaketan parte hartzera eraman zuela nabarmendu zuen. Zentzu berean, beraien errealitate eta bizipenak publikoki partekatzea neketsua dela aitortu zuen, higadura emozional handia ekartzen duelako.

Ikramek garrantzitsua deritzo ezer auresuposatu ordeztu, emakumeei galdetzea zer nahi edo behar duten: *“Bizikidetza bat lortzeko bidean, gutxi laguntzen du ulertuak eta onartuak ez izateak, ez du laguntzen kalean ‘gaixoak’ edo ‘ez dute ezer ulertzen’ bezalako iruzkinak entzuten jarraitzeak”*.

Amaitzeko, ideia argi bat azpimarratu zuen: *“Horrelako topaketen helburua eta mezua ez da entzutera joan diren pertsonetan soilik gelditu behar”*. Bertaratuak bertan esandakoa transmititzera animatu zituen.



CHAIMAE

Chaimae, Ikram baino helduagoa zen Euskadira iritsi zenean. Berak bizitako hainbat gertakariren ondorioz islamofobiari, berdintasunari eta bizikidetzari buruzko egindako gogoeta eta ikuspuntuak azaldu zituen.

Islamofobiaren kontzeptua beretzat nahiko berria dela adierazi zuen: *“Lehen arrazismoaz hitz egiten zen, eta arrazismotik islamofobiaren kontzeptura irailaren 11ko atentatuak izan zirenean pasa zen”*. Haren hitzetan egoera argia da: *“Islamofobia existitzen da, eta jendearen beldurrean du oinarria”*.

Bere esanetan *“arazoa da orokorrean ez dela erlijio musulmana ezagutzen”*. Izan ere, pertsona musulmanekin erlazorik izan ezean, uste du, ezjakintasuna dagoela: *“Ez da egokia erlijio bat ezagutu gabe honi beldurra izatea”*. Hala, azpimarratu zuen ezjakintasun hori handitu egiten dela desinformazioarekin.

Cheimaerentzat lehentasuna dauka bizikidetzak, hala ere, *“gaur egun ez dela existitzen”* uste du. *“Bizikidetzak beharrezkoa da, bizitzera joan zaren herrialdera moldatu behar da”*.

Islamofobia kontzeptua lantzerakoan, Chaimaeri ez zaio hitz egokia iruditzen: *“Islamismofobia egokiagoa da”*. Zentzu honetan, islama eta islamismoaren arteko ezberdintasunak azpimarratu zituen: alde batetik, islama erlijio monoteista bat da, pertsona bakoitzak jainkoarekin duen konpromisoa; islamismoa aldiz, islam politikoa da, botere publikoez jabetzeko erlijioa erabiltzen duena.

Feminismoari dagokionean, Chaimaek esan zuen ez zaiola gustatzen feminismo islamikoaren terminoa. *“Feminismoak emakume eta gizonen arteko berdintasuna eskatzen du”*. Bere ustez feminismoa ulertzeko modu hori eta feminismo islamikoa ez dira bateragarriak.





ENARA

Enarak bere ikasketa unibertsitarioetan izan zuen islamofobiarekin harremana eta gaia aztergai izan zuen bere master amaierako lanean. Hiru hizlarietatik musulmana ez den bakarra da, eta bere azalpena arlo teorikoan eta akademikoan oinarritu zuen.

Feminismoak eraman zuen Enara ere islamofobiara gerturatzera. Ikerketa, bere hitzetan, *“prozesu sakona izan zen”*; aurreiritziak ikusteko aukera izan zuelako, baita ikuspuntu desberdinak ezagutzeko ere.

Intersektionalitatearen kontzeptua oso garrantzitsua da Enararetzat: *“Nahiz eta batzuetan zaila den, kausa desberdinen alde borroka egin behar da aldi berean; zentzu horretan, borroka bat ez da bestea baino garrantzitsuagoa, multzo bat dira”*. Beraz, islamofobia genero-ikuspegitik aztertzeko garrantzitsua izan zen ikuspuntu hau kontuan izatea.



Hasieran, zalantza izan zuen feminismo islami-koarekin; zalantza zuen ea existitzen zen ala kontraesan bat ote zen. Ikertu ondoren ikusi zuen bazegoela feminismo islamikoa, eta are gehiago, definizio ugari zeudela aztertu zuen. Badranen arabera (Badran, 2010) ondorengo da feminismo islamikoa: Koranean oinarritzen den praktika feminista, emakume eta gizonen arteko berdintasuna bilatzen duen feminismoa. Beste autore baten arabera Tohidiren arabera (Tohidi, 2013), aurreko definizioaz gain, emakume musulmanen borroka estrategia bat ere da feminismo islamikoa.

Definizio ugari aztertu ostean genero islamofobiarekin egin zuen topo Enarak: *“Zapalkuntza bat dagoenean zapalketa hori bikoitza izaten da emakumeekiko”*. Kasu honetan emakume eta musulmanak izateagatik.




Bere ikerketan mendebaldeko ikuspuntu kolonia-
la alde batera utzi nahi izan zuen eta emakume
musulmanei eman nahi izan zien ahotsa: *“Emaku-
me musulmanen ikuspuntuak eta jarrerak mendebal-
deko feminismoarekin aztertuta daude”*.

Ikerketaren baitan emakume musulmanei eskatu
ziren etorkizunera begira zer egin nahiko luketen
azaltzea: *“Atera zen gaietako bat izan zen nekatuta
daudela estereotipoak ezabatzeko espazioetara joa-
teaz”*. Estereotipoen artean hiyab-ari buruzkoak
daude.

*“Zapiak agerikoago egiten ditu, eta nahiz eta era-
mateagatik sufritzen dela dioten, aldi berean ahal-
duntzen laguntzen du”*, mahaigaineratu zuten
Enarak elkarriketatutako emakume musulma-
nek. Era berean, eskatu zuten beste emakume
erakundeek islamofobiari aurre egiteko denbora
gehiago inbertitzea, horrela emakume musulma-
nek beste gai batzuk jorratzeko aukera gehiago
izango dutelako. Etorkizunerako ere eskatu zu-
ten, integrazioarekiko iruditeriarekin apurtzea,
hau ‘hemengoengana gerturatzea’ bezala ulert-
zen baita, eta hori bi aldeek egin behar baitute.

Azkenik, musulmanei buruz ematen diren be-
rrien gehiengoa negatiboak dira: *“Horregatik da
garrantzitsua komunikabideetan agertzen dena au-
tomatikoki ontzat eta egiaztat ez ematea”*. Izan
ere, komunikabideek musulmanekiko iruditerian
orokorrean eta emakume musulmanekikoan ga-
rrantzi handia dutela azpimarratu zuen.






5.

DESIREN PUTZUA / ESKAERAK

Ikram, Chaimae eta Enararen testigantzak eta hausnarketak entzun ondoren parte-hartzaile bakoitzari txartel bana banatu zitzaion. Bertan bakoitzak etorkizunari zer eskatzen dion idatzi behar zuen, bizkitararako erronka den islamofobiari aurre egiteko proposamenak idatziz.

Hasi baino lehen, islamofobia genero-ikuspegitik topaketan landu izana kontuan hartzeko eskatu zitzaion. Desira horiek eskatzeaz gain, bakoitzari errealista izan zitekeen proposamena egiteko eskatu zitzaion, eta ahal den heinean norberak hurrengo egunean bertan bere eguneroko bizitzan praktikan jartzea.



- Pintxo potea eraldatu erlijio, kultura eta edozein motako pertsonak egoteko.
- Ahotsa izatea; eta bestalde inklusioa izatea, ez integrazioa.
- Beloa daraman emakumeekiko iritzia aldatu.
- Erlijioari buruz gehiago informatu eta hau erreminta bezala erabiliz gizarte eskubideen alde borrokatzen jarraitu.
- Beloa daramaten pertsonen begi onez begiratzea, berdintasun batean.
- Beloaz haratago doan begirada izatea. Emakume musulmana jantzia baino gehiago da. Gerturatu behar gara eta ezagutu behar dugu.
- Gustatuko litzaidake pertsonak bezala ikustea bata bestea. Gizarteetan erlijioa ez dadila eragozpena izan sentsibilitate desberdinen arteko bizikidetzarako.
- Pertsona guztiekiko errespetua, arraza eta erlijioa kontuan izan gabe.
- Desberdina dena mentalitate irekiarekin begiratu.
- Errespetua eta dekonstrukzioa.
- Ondokoa errespetatu eta gaiari buruz kontzientzia eta jakintasun gehiago jasotzen joan.
- Inkontzienteki dauzkagun estereotipoen (mota orotakoak) dekonstrukzioa.
- Desberdina dena mentalitate irekiarekin eta aurreiritzirik gabe begiratu.
- Janzkerak euskaldun izateko traba ez izatea.
- Islama den bezala ulertzea, beldur gabe.
- Gaiari buruz gehiago irakurri, pentsatu, hausnartu eta ikasi.



Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK)

gazteek dauzkaten eskubideei, interesei eta ardu-rei erantzutearen alde egiten du lan. Horren baitan gazteentzako espazioak eta plazak eratzeko lana egiten du, 'Islamofobia: feminismoak, erronkak eta ikuspegiak' bezalako proiektu eta topaketa desberdinak antolatuz, lan arloka eta gai anitzen inguruan jarduteko. Interesa badagoela ikusi zen topaketara gerturatu ziren gazteen artean. Hauei interesatzen zaizkien gaietan parte hartzeko —eta protagonismoa izateko— aukera ematea beharrezkoa da, bizikidetzan eta berdintasunean oinarritzen den gizarte bat eraikitzeko, islamofobiaren gaia lantzea era honi aurre egiteko proposamen edo tresnak partekatzea ere garrantzitsua delarik.

Txosten hau ateratzearen helburua eta xedea, hizlariak esan zuten bezala, gaiarekiko ardura gizarte osoak hartzearen beharra izan da, baita honi aurre egiteko gazteen ikuspegia aztertzea ere. Ikuspuntu eta hausnarketa desberdinak ezagutzeak gaiarekiko informazioa eskuragarri izateko balio du, informatu eta hala beharrak identifikatzeko zein kontzientzia eta ikuspegiak zabaltzeko. Ekitaldian egindakoa laburbildu eta gazteen ahotsari bozgorailua jarri nahi izan zaio txosten honetan.

BIBLIOGRAFIA

Ali, Aurora; Bourekba, Moussa; Carrión,-Mónica; Khir Allah, Ghufra; López, M. Dolores; Padilla, Jordi eta Sahagún Felipe (2018). *Una realidad incontestable. Islamofobia en los medios.* IEMed i Fundación Al Fannar: Barcelona.

Arrieta, Enara (2018). *El velo en tu país: Feminismo hegemónico, Feminismo islámico e Islamofobia de género, una mirada desde las mujeres musulmanas.* (Master Amaierako Tesia). Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.

Badran, Margot (2010). *Feminismo Islámico en marcha.* Clepsydra, Vol. 9, pp. 69-8.

Bourne, Edmund (2005). *The Anxiety & Phobia Workbook.* New Harbinger Publications

Ferran, Ane eta Guinot, Cinta (2018). *Aporofobia: zaharrak berri? Kontzeptuaren bilakera eta gaitzatzeko estrategien bila; hezkuntza-erentzako erronka.* Zerbitzuan, Vol 67, pp. 95.

Goikolea, Itzea (2013). *“Conversas al islam: agencia, piedad y feminismo”.* 2019ko urriaren 10an berreskuratua. <https://www.pikaramagazine.com/2013/07/conversas-al-islam-agencia-piedad-y-feminismo-2/>

Medina, Rocio (2014). *Resistencias, identidades y agencias en las mujeres saharauis refugiadas.* Revista Internacional de Pensamiento Político, Vol. 9, pp. 163-181.

Mijaren, Laura eta Ramírez, Ángeles (2008). *Mujeres, pañuelo e islamofobia en España: Un estado de la cuestión.* Anales de Historia Contemporánea, Vol. 24.

Navarro, Laura (2012). *Islamofobia y sexismo. Las mujeres musulmanas en los medios de comunicación occidentales.* Gil, Daniel (koord) La islamofobia a debate. La genealogía del miedo al islam y la construcción de los discursos antiislámicos -en.

Ramberg, Ingrid (2004). *Islamophobia and its consequences on Young People.* European Youth Centre Budapest.

Tohidi, Nayereh (2013). *Islamic Feminism: Women negotiating modernity and patriarchy in Iran.* Oxford: Blackwell Publishing.

Vasallo, Brigitte (2016). *Burcas en el ojo ajeno: el feminismo como exclusión.* Karvala, David (ed.) Combatir la islamofobia-en.

Zine, Jasmin (2006). *Between Orientalism and Fundamentalism. The Politics of Muslim Women's Feminist Engagement.* Muslim World Journal of Human Rights, 3.

Proiektua garatu du



Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua

Consejo de
la Juventud
de Euskadi

Laguntzaileak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Giz Eskubide, Bazelaketa
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia
Bakarra eta Giz Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SALA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAGUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Gazteria

